



## **LESAKAKO UDALA**

Plaza Zaharra, 1  
31770 Lesaka (Nafarroa)  
IFZ P3115200B

Tel. 948637005

[www.lesaka.eus](http://www.lesaka.eus)

[udala@lesaka.eus](mailto:udala@lesaka.eus)

### **ALKATEAREN 331 EBAZPENA, ANDRA MARI ZAHAR ETXEKO GEROKULTOREA LANPOSTUAK, OPOSIZIO-LEHIAKETAREN BIDEZ, BETETZEKO ONARTU ETA BAZTERTUTAKO IZANGAIEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA ONESTEN DUENA, ETA DEIALDIAREN EZAUGARRIEN TAULAN ZEHAZTEN DEN ETA UDALAREN ATARIAN EGONEN DEN WEB FITXAN ARGITARATZEKO AGINDUA EMATEN DUENA.**

Alkatearen 216/2022 Ebazpenaren bidez (2022ko 103. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, maiatzaren 26koa; urriaren 31ko 509/2022 Ebazpenak aldatua –2022ko 228. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, azaroaren 17koa–) onetsi da 2022rako lan publikoaren eskaintza, ezartzen dituen enplegua egonkortzeko prozesuak eta deialdi bereziak, Enplegu publikoan dagoen behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurrien abenduaren 28ko 20/2021 Legeari jarraikiz.

Osoko Bilkuran 2022ko azaroaren 16an hartutako erabaki baten bidez, toki erakunde hau partez atxikitzen zaio uztailearen 1eko 19/2022 Foru Legearen II. tituluan jasotako erregulazioari (foru lege horren bidez neurriak hartzen dira egonkortze-prozesuak gauzatzeko, Nafarroako Administrazio Publikoetan, Enplegu publikoan dagoen behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurrien abenduaren 28ko 20/2021 Legearen ondorioz).

Lesakako Udaleko alkatearen abenduaren 14ko 580/2022 Ebazpenaren bidez onetsi zen gerokultore lanpostu hutsak oposizio-lehiaketaren bidez betetzeko deialdia, aldi baterako enplegua egonkortzeko eta finkatzeko prozesu bereziaren barnean, Enplegu publikoan dagoen behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurrien abenduaren 28ko 20/2021 Legean xedatutakoaren arabera. Ebazpen hori 2022ko abenduaren 30eko 263. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, ale berezian, eta zuzenketa 2023ko urtarrilaren 16ko 10. Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

580/2022 ebazpenaren 6. puntuaren arabera, onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onetsiko da, eta deialdiaren ezaugarrien taulan zehazten den eta toki erakundearen atarian egonen den deialdiaren web fitxan argitaratzeko aginduko da.

Ondorioz, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 21.1 artikuluan ezarritako eskumenak erabiliz, honako hau

#### **EBATZI DUT:**

1.) Andra Mari Zahar Etxeko gerokultora lanpostuetarako (%75ko lanaldian), onartutako izangaien behin behineko zerrenda onartzea, aldi baterako enplegua egonkortzeko eta finkatzeko ezohiko prozesurako lanpostu hutsen deialdia, abenduaren 28ko 20/2021 Foru Legean, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzkoan, xedatutakoaren arabera.

Gerokultora onartuen eta baztertuen zerrenda:

#### **-ONARTUAK:**

- 1.- 44.574.525 L
- 2.- 15.936.856 H
- 3.- Y0022877 Y
- 4.- 72.667.946 K
- 5.- 72.669.128 F
- 6.- Y7280743 S
- 7.- 72.666.959 T
- 8.- 72.815.391 J

9.- 44.168.905 G

**BAZTERTUAK:**

- 1.- 72.675.365 B, 2. eranskina ez da zuzena.
- 2.- 29.155.190 E, 2. eranskina ez da zuzena.

2.)Ebazpen hau Lesakako Udaleko atariko deialdiaren web fitxan argitaratzeko agindua ematea..Biharamunetik hasita, izangai baztertuek hamar egun balioduneko epea izanen dute erreklamazioak aurkezteko eta, akatsik egin badute, haiek zuzentzeko. Erreklamazioak telematikoki aurkeztu beharko dira, ezaugarrien taulan zehazten den Interneteko helbidean.

ALKATEA,



IDAZKARIA,